# IRAGANETIK ETORKIZUNERA

Iragana behatzen eta aztertzen jaioak gara eta, hainbatetan, ez gara gauza ondo eginikoei balioa emateko, ez eta eginiko hanka-sartzeetatik irakaspenik ateratzeko ere. Edozein gisaz, iraganak ekarri gaitu honaino, gure aurretikoek egunerokoan gauzatutakoen eta amestutakoen ondorio legez. Esan barik doa abiapuntu garrantzitsua dela, nondik gatozen jakitea ezinbestekoa baitzaigu etorkizuna beste begirada batez antzematen ahalegintzeko, are gehiago, herri txiki bat osatzen dugunean eta aldameneko bi estatu boteretsuek gu asimilatu nahian mende batzuk-batzuk eman dituztenean, azken batean, gure izaera ezabatu guran.

Gauza jakina da bidea egitean atzera begira dabilenak estropezu egiteko aukerak ugariak dituela, aurrera begiratu behar baitugu, gure gizartearen, egungo zein bihar-etziko ezaugarrietan pentsatu eta asmatu, nahiko genukeen edo amesten dugun gizartea aurreikusi... eta horretara iristeko, dezakegun onena eman, iragana ere aintzat hartuta. Inolako ezbairik gabe. Etorkizuneko gizartea askotarikoa izango da, zinez, jatorriari, pentsaerei, familien antolaerei, bizitza eta pertsonen arteko harremanak lantzeko erei eta abarrei dagokienez; eta, era berean, irekitasuna, aniztasuna, bizikidetza eta tolerantzia zimentarri izango ditu; indarkeria oro alboratuko du, egiazko berdintasuna aldetuko du, aukera urriak dituztenen alde jardungo du... Hau da, gizarte berria, modernoa, eraldatzailea, konprometitua eta euskaldun eleaniztunez osatua. Munduari irekita dagoen gizartea, herri-berritua eta berritzailea.

2030. urteari begira jarri ginen joan den uztailaren 20an, Bilbon, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, Euskaltzaindiak eta Fundazioak berak, “2030eko euskaldun eleaniztuna” izenburuaren ildotik antolatutako mintegian. Norbaitek pentsa dezake data hori hurre-hurrean daukagula eta ez dagoela ezer egiteko tarterik. Aitzitik, hurrengo dozena erdi urtean, datozen hogei-hogeita hamar urteetarako euskal gizartearen zimentarriak ezarriko dira. Ondorioz, behar da horretaz hausnartu, pentsatu... aldi labur batean erabaki eta abian jarriko direnak bihar-etziko euskal gizartea moldatuko dutelako. Jomuga hori izan genuen kontuan joan den uztailean eginiko mintegian, egungo egoera eta etorkizunekoa, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-erronka nagusiak, hezkuntza-politikaren aurreikuspenak eta gizarte-ekintza euskaldunaren lehentasunak berariaz arakatuta. Hala, bada, jardunaldian jorratutako txostenez gain, lantalde bakoitzak eginiko hausnarketak ere jaso dira, txostenetan esaten direnak iruzkintzen eta aberasten dituztelakoan. Hemen duzu horren emaitza, ekarpena, eztabaida sustatzeko eta aberasteko helburuz gertatutakoa. Horrenbestez, emandako hitza bete dugu, behinola Gabriel Arestik esanikoa, «herriarengandik jasotakoa herriari bueltatzea, aberats eta osa dezan».

MIREIA ZARATE

SABINO ARANA FUNDAZIOAREN PRESIDENTEA

# DEL PASADO AL FUTURO

La observación y análisis del pasado forma parte de nuestra esencia original, pero, en ocasiones, no acertamos a valorar lo que se ha hecho bien ni a extraer enseñanzas de los errores cometidos. En cualquier caso, el pasado nos ha traído hasta aquí, de la mano de los actos cotidianos y sueños de nuestros predecesores. Huelga decir que saber de dónde venimos constituye un punto de partida ciertamente relevante, en la medida en que tal conocimiento es imprescindible a la hora de contemplar el futuro con una mirada diferente, máxime en el caso de un pequeño pueblo, como el nuestro, al que dos poderosos estados vecinos han tratando a lo largo de los siglos de asimilar y, en definitiva, despojar de su naturaleza.

Sabido es que quien camina mirando atrás corre serio peligro de tropezar; debemos mirar hacia delante, pensar e imaginar las características tanto actuales como futuras de nuestra sociedad, prever qué sociedad desearíamos o soñamos... y, para lograrla, dar lo mejor de nosotros y nosotras, tomando en consideración también el pasado. Sin lugar a dudas. La sociedad del futuro será ciertamente diversa en cuanto a origen, mentalidad, estructura familiar, formas de vida y relaciones interpersonales, etc.; y, al mismo tiempo, asentará sus cimientos sobre la apertura, la diversidad, la convivencia y la tolerancia; desechará toda violencia, defenderá la igualdad real, favorecerá a quienes dispongan de menos oportunidades... Será, en definitiva, una sociedad nueva, moderna, transformadora, comprometida y compuesta por euskaldunes multilingües. Una sociedad abierta al mundo, un país renovado e innovador.

El pasado 20 de julio en Bilbao, en la sede de la Fundación Sabino Arana, llevamos nuestra mirada al año 2030 en un seminario organizado por Euskaltzaindia-Academia de la Lengua Vasca y la propia Fundación bajo el título “El euskaldun multilingüe de 2030”. Tal vez alguien pueda pensar que la proximidad de dicha fecha ofrece un muy escaso margen de actuación. No obstante, en la próxima media docena de años se establecerán los cimientos de la sociedad vasca para los próximos veinte o treinta años. En consecuencia, es preciso reflexionar, pensar... porque lo que se decida y ponga en marcha en tan breve lapso de tiempo moldeará la sociedad vasca del futuro. Ese fue nuestro objetivo en el seminario celebrado el pasado mes de julio, en el que analizamos de manera específica la situación actual y futura, los retos lingüísticos más relevantes que deberá afrontar el Gobierno Vasco, las previsiones de la política educativa y las prioridades de la acción social euskaldun. Así, además de los informes expuestos a lo largo de la jornada, se han recogido las reflexiones realizadas al respecto por cada grupo de trabajo, en la certeza de que glosan y enriquecen el contenido de los citados informes. Lo que ahora llega a tus manos es el resultado de todo ello, una aportación que se propone fomentar y enriquecer el debate. Cumplimos, por tanto, la máxima de Gabriel Aresti: “devolver al pueblo lo que del pueblo se ha recibido, para que lo enriquezca y complete”.